



EMAKUME ETA GIZONEN
ARTEKO BERDINTASUNERAKO
II. PLANA
2009-2012

GUEÑESKO UDALA

APIRILA 2009



AURKIBIDEA

1.- Arau esparrua	3
2.- Metodologia	8
3.- Diagnostikoaren emaitzak	14
3.1. AMIA	14
3.2. Hobetzeko eremuak	15
4.- Ardatz estrategikoak eta arloak	18
5.- Plana ezartzeko neurriak	24
5.1.- Berdintasunerako egiturak	24
5.2.- Plana kudeatzeko tresnak	26
6.- Programak, helburuak eta ekintzak	27
7.- Ebaluaziorako adierazleak	51
8.- Kronograma	62

1. ARAU ESPARRUA

Azken urteotan lege eta arau juridiko asko sortu dira nazioarte mailan, Europan, estatuan eta toki mailan, eta guztien helburua Emakume eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Eskubidea agerian aintzatestea. Beraz, honako Planak erakunde eta legeen babes zabala dauka.

Jarraian, genero-politiken arloko teoria eta lege batzuk emango dira:

- o Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea (2003-12-21ean eguneratua).
- o Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa
- o EAEn Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Plana
- o Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa
- o Toki mailan Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Europako Gutuna

Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea (2003-12-21ean eguneratua).

Legearen 28. artikulua aipatzen duenez, beste herri administrazio batzuei badagozkie ere, udalerriek haien jarduera osagarriak egin ditzakete, bereziki, hezkuntzari, kulturari, emakumeen sustapenari, etxebizitzari, osasunari eta ingurumena babesteari buruzkoak. Testuinguru horretan argi dago toki administrazioaren nagusitasuna, eta udalerriei esku hartzen uzten die, hain zuzen ere, jarduerak sustatzen eta zerbitzu publikoak eskaintzen, genero arloan herritarren beharrianak eta eskakizunak betetzeko. Baina horrek ez ditu inoiz beste herri administrazio batzuen eskumenak galarazi edo oztopatu behar.

4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak argi zehazten ditu administrazioaren maila bakoitzari dagozkion eginkizunak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean, lege hauek emandako eskumenetan oinarrituta: Autonomia Estatutuaren 10.39 artikulua, Lurralde Historikoetako Legearen 6 eta 7 c) 2 artikulua, eta emakumeen eta gizonen artean aukera-berdintasuna eraginkorra eta benetakoa izan dadin, baldintzak sustatzera, oztopoak kentzera eta, baita ere, bere politika guztietan eta ekintzetan aipatu berdintasuna sustatzera botere publikoak behartzen duten estatutuaren arauak (9.2. art.) eta Europako Batasunaren Itunaren arauak (3.02 art.).

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak honako eginkizunak ematen dizkio toki administrazioari:

- Genero-ikuspegia txertatzeko egiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea.
- Ekintza positiboko neurriak hartzea.
- Programazioa Gobernuaren plangintza orokorrean eta kasuan kasuko Foru Aldundiaren baitan egingo da.

- Estatistikak moldatu eta eguneratzea, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun egoera nolakoa den jakiteko eta berdintasuna sustatzeko zer egin jakiteko.
- Herri mailan emakumeen eta gizonen egoera zein den jakiteko azterketak eta ikerketak egitea.
- Jarduerak egitea, emakumeen eta gizonen arteko desorekari buruz sentsibilizatzeko eta berdintasuna sustatzeko behar diren neurriak hartzeko.
- Tokiko araudiaren eta aplikazioaren jarraipena egitea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioaren ildotik.
- Era askotako bereizkeria pairatzen duten emakumeentzako zerbitzuak eta programak antolatzea, berez Udalak eman beharko lituzkeen oinarritzko gizarte-eskubideak eskuratzen dituztela bermatzeko.
- Berez Udalak eman beharko lituzkeen baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak eskaintzea, bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiteko.
- Erakunde publiko eta pribatuekin parte hartzeko eta lanean aritzeko harremanak eta bideak ezartzea, erakundeek beraien helburuen eta eginkizunen arabera, emakume eta gizonen arteko berdintasunean laguntzeko.
- Sexua dela-eta herrian gertatzen diren bereizkeriak antzematea, eta ezabatzeko neurriak hartzea.
- Beraien eskumen-eremuko beste edozein eginkizun.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Plana

Emakume eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako IV. Planak frogatzen du Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea oinarritzko aurrerapausoa dela berdintasun politiketarako; izan ere, Euskal Administrazio Publikoan eta, behar denean, erakunde pribatuetan berdintasunaren printzipio juridiko unibertsala garatzen du arauetan, bai aukera, bai tratu berdintasuna.

EAEn Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako IV. Planaren diseinuari eta egiturari buruzko lau funtzio ezartzen ditu Legeak:

- Plana gauzatzean herri-aginteen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzea (Legearen atariko titulua).
- Genero-ikuspegia euskal administrazio publikoen jardunean txertatzeko neurriak ezartzea.
- Esku hartzearen arlo ezberdinetan berdintasuna sustatzeko ardatzak antolatzea (III. titulua).
- Oinarritzko edukiak zehaztea.

Emakumeen eta Gizonen arteko Benetako berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa

Batetik, 2007ko martxoaren 23ko BOEn argitaratu zen legeak abiapuntu hau dauka: emakume eta gizonen arteko berdintasuna "printzipio juridiko unibertsala da, giza eskubideei buruzko nazioarteko testuetan onartua".

Bestalde, legearen beste oinarri bat da legea funtsezkoa dela eta arauen bidez hobetu behar dela eta "beharrezkoa da, hain zuzen ere, gaur egun oraindik bizirik dirauten sexuagatiko bereizkeria adierazpenei, zuzenekoei zein zeharkakoei, kontra egiteko eta emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatzeko arau egintza bat osatzea, eta hori galarazten duten traba eta estereotipo sozialak kentzea".

Legearen oinarrizko printzipioak dira "ekintza positiboa", "ordezkaritza orekatua" eta "zeharkakotasuna".

21.1 artikulua ezartzen duenez, *"Toki erakundeek berdintasunaren eskubidea ezarriko dute haien eskumenak erabiltzean eta, horretarako, lagundu egingo diete gainerako herri administrazioei"*. 3/2007 Legeak toki administrazioaren berezko eskumenak aipatzen ditu, Toki Araubideak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak emandakoak, eta udalerriei dagokienez, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean zehaztuta.

Toki mailan Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Europako Gutuna

Tokiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutuna, Europako Udalerrien eta Erregioen Kontseiluak bultzatua emakumeen eta gizonen berdintasunerako erkidego-ekintzaren 5. programaren barruan, "Europako tokiko eta erregioko gobernuztat da, eta gutuna sinatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioari buruzko jendaurreko jarrera agerraraztea eta Kartan zehazturiko konpromisoak haien lurraldean aplikatzea eskatzen die".

EUDEL (EAEko Udalerrien Elkartea) da proiektuaren bazkideetako bat, eta gero eta euskal udal gehiagok sinatu dute gutuna. Gutun horrekin bat egin duten udalek hitzartu egin dute bi urteren buruan berdintasunerako ekintza-plan bat egitea eta abiaraztea, guztiek parte hartuta eginikoa eta ebaluazio-irizpideei lotua, baita plan hori abiarazteko nahikoa baliabide izatea ere.

Europako Gutunak hauxe aintzatesten die tokiko eta erregioko agintariei: "Esku hartzeko mailarik onenak izatea desberdintasunen iraunkortasunari eta berragerpenei aurre egiteko eta benetako berdintasunezko gizartea bultzatzeko".

Arau horiek berdintasun printzipio hauetan oinarritzen dira:
(Emakume eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea)

1.–Tratu berdina.

Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.

Lege honen ondoreetarako:

a) **Zuzeneko bereizkeria** dago pertsona bat sexuaren zioz edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla-eta (haurdun egonda edo ama izanda, esaterako) beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean. Delitu gisa izan dezakeen tipifikazioa ahaztu gabe, laneko sexu-jazarpena sexuaren ziozko zuzeneko bereizkeriatzat jotzen da.

b) **Zeharkako bereizkeria** dago egintza juridiko, irizpide edo eginera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo eginera hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilia justifikatzeko modukoa denean.

Euskal aginte publikoek ezin izango dute inolako diru-laguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen edonolako jardueretarako. Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak ere egoera berean geratuko dira, dena delako zehapen edo zigorrak dirauen denboran.

Euskal herri-agintek bermatu behar dute ezen bereizkeria-egoerak eragin ditzaketen beste inguruabar batzuk ere tartean direla-eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek nahiz emakume-taldeen benetan baliatzen dituztela beren oinarritzko eskubideak. Inguruabarrok honako hauek izan daitezke: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiet buruzko iritziak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaioterria, ezintasuna, adina, sexu-joera, edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial.

2.– Aukera-berdintasuna.

Euskal herri-agintek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonen eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarritzko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne. Lege honen ondoreetarako, aukera-berdintasunaz ari garela, zera esan nahi da: agintea eta baliabide eta onura sozial eta ekonomikoak eskuratzeko abiagune edo hasierako baldintzak ez ezik, horiek guztiak gauzatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzez ere ari garela.

Era berean, euskal herri-agintek bermatu egin beharko dute ez dela oztoporik egongo lege honetan aipatzen diren eskubideak gauzatzeko eta arautzen diren baliabideak



eskuratzeko; izan ere, Irigarritasuna Sustatzen duen abenduaren 4ko 20/1997 Legean oztopo horiek bertan behera uztea zehazten da.

3.– Aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea

Herri-aginteeek beharrezko neurri guztiak abiarazi behar dituzte, bai gizonen eta emakumeen artean biologiari, bizi-baldintzei, jomugei eta beharrazanei dagokienez dauden ezberdintasunak eta aniztasuna sexuen berdintasunerako prozesuan errespetatu daitezen, bai emakumeen eta gizonen kolektiboen euren barruan dauden ezberdintasunak eta aniztasuna ere.

4.– Genero-ikuspegia txertatzea.

Euskal herri-aginteeek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

Lege honen ondoretarako, honakoa da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea

5.– Ekintza positiboa.

Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, herri-aginteeek denboran ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko.

6.– Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea.

Euskal agente publikoek, inola ere, sexuaren araberako rol sozial eta estereotipo batzuk desagerraraztea sustatu behar dute, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren oinarri baitira eta horien arabera emakumeei etxeko eremuaren ardura eta gizonei eremu publikoaren ardura izendatzen baitzaizkie; hori, gainera, balorazio eta aitorten ekonomiko eta sozial oso ezberdinaz egiten da.

7.– Ordezkaritza orekatua.

Euskal agente publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte, erabakiak hartzeko eremu guztietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin. Lege honen ondoretarako, pertsona anitzeko administrazio-organismoetan ordezkaritza orekatutzat, hain zuzen, sexu biek %40ko ordezkaritza, gutxienez, dutenean joko da.

2. METODOLOGIA

Gueñesko Udalean Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako II. Plana eta Diagnostikoa egiteko faseak hauexek izan dira:

1. **FASEA:** Gueñesko Udalaren Ekintza Positiboko I. Planaren ebaluazioa.
2. **FASEA:** Gueñesen Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunaren diagnostikoaren ebaluazioa.
3. **FASEA:** Gueñesko Udalaren Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako II. Planaren (2009-2012) ebaluazioa.

Fase bakoitzean erabilitako metodologia azalduko dugu:

1. FASEA: Planaren ebaluazioa

Udalean planaz arduratzen den taldearekin **BALORAZIO** kualitatiboa eta kuantitatiboa egin da, aurretik bilera bi eginda. Hona hemen bilera horietan kontuan hartu diren arloak:

EBALUAZIO KUANTITATIBOA

Planaren ekintzak noraino bete diren jakiteko: burututako ekintzak, burutu ez direnak, zati batean bakarrik egindakoak eta planean aurreikusita egon barik burutu diren ekintzak.

EBALUAZIO KUALITATIBOA

Burututako, burutu gabeko eta zati batean bakarrik burutu diren ekintzen taula kuantitatiboan oinarrituta, hauxe aztertu da:

- Jarduerak hasierako helburuari nola erantzuten zioten.
- Helburua noraino bete den.

Hauek ere aztertzen dira:

- Helburuen egokitasuna, hauexek barne:
 - § Objektiboki egiaztatu ahal diren ala ez.
 - § Helburuak nola laguntzen dion emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari.
- I. Berdintasun Planaren emaitzak
 - § Lortu diren emaitzak.
 - § Aurrerapausorik handiena izan duten arloak eta horietako bakoitzean lortutakoa.
 - § Aurrerapausorik txikiena izan duten arloak eta zergatik.
 - § Arlo batzuetan aurrera eta beste batzuetan atzera egiteko arrazoiak.



- Plan osoaren analisisa, ondorio hauek ateratzeko:
 - § Helburuak guztiz bete diren ala ez.
 - § Udalerrian emakume eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiten lagundu duten ala ez.
 - § Genero-ikuspegia udalaren sailetan txertatzen nola lagundu duten.
 - § Denboraldi horretan zein sailetan egin den lan gehien.
 - § Denboraldi horretan zein sailetan egin den lan gutxien.
 - § Ekintza positiboan diseinuan emakumeen eta gizonen zein sektore izan den garrantzitsua.
 - § Ekintza positiboan diseinuan emakumeen eta gizonen zein sektore geratu den baztertuta.
 - § Planaren indar-guneak.
 - § Planaren lorpen garrantzitsuenak.
 - § Planaren ahuleziak.
 - § Hurrengo Planean gainditu nahi diren arloak.

Fase honetan egin den txostenak Diagnostikorako eta II. Planerako balio du.

2. FASEA: Gueñesen emakume eta gizonen arteko berdintasunerako diagnostikoaren ebaluazioa.

Berdintasunerako plan edo estrategia guztien alde aurreko urratsa da udalerria ondo ezagutzea eta emakume eta gizonen arteko berdintasun arloan Udalaren jarduna ere bai.

Hona hemen erabili den estrategia:

1. Bilerak udal teknikariek eta politikariek, burutuko den prozesua azaltzeko eta udal sail bakoitzeko genero adierazleen fitxak banatzeko.
2. Adierazleei buruzko datuen bilketa eta analisisa.
3. Genero-ikuspegia udal sailetan txertatzeari buruzko galdetegia prestatzea eta hezkuntzako zentroetarako beste galdetegi bat.
4. Informatzaile garrantzitsuei elkarriketa sakonak egitea.
5. Herriko emakumeen arteko bilgunea sortzea, emakumeek arlo ezberdinetan dituzten beharrianak antzemateko.
6. Gueñesen emakume eta gizonen egoerari buruzko diagnostiko agiri bat egitea, Udalean berdintasun politikaz arduratzen direnek erkatua.

Datu-bilketari dagokionez, Udalaren barruan berdintasun-politikei buruz eta emakume eta gizonen jarrerari eta egoerari buruzko datuak dira, udal sail hauetan:

- Hirigintza, herri lanak eta zerbitzuak
- Kontuak, ogasuna eta ondarea
- Kultura, kirola, jaiak eta turismoa
- Basoak
- Gizarte ekintza
- Lana, ingurumena, toki garapena, merkataritza, industria eta gazteria
- Hezkuntza, berdintasuna eta euskara

Aipatutako sail hauek lotuta daude diagnostikoa eta egingo den plana osatzen duten sailekin, taula honetan ikusten den bezalaxe:

PLANAREN ARLOAK	UDAL SAILAK
NEURRI OROKORRAK	Hezkuntza, berdintasuna eta euskara eta gainerako udal sailak
KULTURA ETA KIROLA	Kultura, kirola, jaiak eta turismoa
GAZTERIA	Lana, ingurumena, toki garapena, merkataritza, industria eta gazteria
HEZKUNTZA	Hezkuntza, berdintasuna eta euskara
LANA	Lana, ingurumena, toki garapena, merkataritza, industria eta gazteria
GIZARTERATZEA, OSASUNA ETA DROGA MENDEKOTASUNA	Gizarte ekintza
HIRIGINTZA ETA INGURUMENA	Hirigintza, herri lanak eta zerbitzuak Lana, ingurumena, toki garapena, merkataritza, industria eta gazteria Basoak

Informazioa jasotzeko tresna hauek erabil idira:

1. Udalaren esku-hartzeko esparru ezberdinetako adierazleen fitxak, MURGIBEK eginak EAEn Emakume eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako IV. Planaren inpaktu-eragileetatik abiatuz.
2. Elkarriketen gidoiak.
3. Genero-ikuspegia udal sailetan txertatzeari buruzko galdetegia.
4. Herriko emakumeen bilgunearen gidioa.
5. Hezkuntza zentroetarako galdetegia.



Jaso diren agirien eta erabilitako iturrien zerrenda:

Diagnostikoa egiteko erabili diren agiriak eta iturriak
Udalaren web orria: www.guenes.net
Gueñesko kale-izendegia.
Udal errolda.
2008ko Udalaren Informazio Gida.
Betetako adierazle-fitxak.
Gueñesko udal liburutegiei buruzko datuak.
IES Avellaneda BHI eta Eretza herri ikastetxeko ikasle, irakasle eta zuzendaritzako kideen datuak, sexuaren arabera bereizita.
Bizkaian kirol federatuari buruz ASFEDEBIK emandako datuak
Enpleguari buruzko LANBIDEn datuak.
Enpleguari buruzko INEMen datuak.
Enpleguari buruzko EUSTATen datuak.
Osakidetzako osasun zentroi buruzko informazioa
2002-2010 Euskadin Osasun Planaren 2006ko txostena.
EAEen Osasunari buruzko Inkesta 2007.
Landa inguruneari buruzko datuak EUSTATen.
Emakunderen web orria: www.emakunde.es
www.bizkaia.net

Jasotako datuak egiaztatu dira udalaren teknikari eta politikariek eta herriko gizarte agente batzuekin elkarriketak eginez.

Hamahiru elkarriketa egin zitzaizkien pertsona hauei:

- Alkatea
- Berdintasuneko zinegotzia
- Hirigintzako zinegotzia
- Idazkaria
- Kontu-hartzailea
- Kultur teknikaria
- Enplegu eta Toki Garapenerako teknikaria
- Avellaneda BHI Institutuko zuzendaria
- Eretza herri ikastetxeko zuzendaria
- Behargintzaren koordinatzailea
- BASORIREn kudeatzailea (herriko kultur jarduerak antolatu eta koordinatzeko kontratatu den enpresa)
- Enkarterriko Mankomunitatean Gizarte Ongizateko koordinatzailea
- Enkarturreko kudeatzailea

EMAKUMEEN BILGUNEA

Helburuak

1. Gueñesen Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuneko II. Udal Planaren elaborazio prozesua ezagutaraztea.
2. Egingo den II. Plan horretan ageri diren ardatz estrategikoei eta esku-hartzearen arloei dagokienez, herriko emakumeen beharrianak identifikatzea.
3. Herriko emakumeek berdintasuna eraikitzen lagundu dezaten sustatzea.

Metodologia

Herriko emakumeen beharrianak zein diren jakiteko erabili den metodologia eztabaida-taldea izan da.

Etorkizuneko Planaren esku-hartzeko esparruetan arituko diren emakumeekin lan egin nahi da (EAEn Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasuneko IV. Planean ageri direnak). Horregatik, herrian lan egin edo jardueraren bat burutzen duten emakumeak gonbidatu dituzte eta gainera, bilgune horretan ekarpenen bat egin nahi duten emakume guztiei dei egin zaie udal bando baten bidez.

Emakumeen bilgunean metodologia eta helburuak aurkeztu dituzte, eta baita ere, Berdintasunerako udal planaren esku-hartzeko esparruak: neurri orokorrak; Kultura, Kirola eta Gazteria; Hezkuntza eta euskara; Lana, gizarteratzea, osasuna eta droga-mendetasuna; hirigintza eta ingurumena. Jarraian, planaren zeharkako ardatz estrategikoak aurkeztu ziren, hau da, mainstreaming, jabeak eta emakumeen partaidetza soziopolitikoak, bateragarri egitea eta erantzukidetasuna eta emakumeen aurkako indarkeria.

Eztabaida-taldean erabili den gidoian garrantzi handiko 3 beharrian aipatzen dira, herrian bizi diren edo lan egiten duten emakumeen ikuspuntutik, herrian herriko diagnostikoaren eta Aukera Berdintasun Planaren arlo bakoitzerako.

Garapena

Gueñesen 12 emakume hartu dute parte; beraiekin 4 talde egin ziren eta emakumeen beharrianei buruzko galdetegiaren azalduko gaien buruz eztabaidatu dute talde guztietan.

Bilgunean parte hartzen duten emakumeak adin eta jatorri ezberdinetakoak dira eta udalerriko lau auzoetako ordezkariak daude; Sodupeko 8 emakume daude: Alaitasuna emakumeen elkarteko ordezkari bat, Gallarraga Mendi Taldeko ordezkari bat, Mendi Ona abesbatzako bi, Enkarterri Neskak kirol taldeko 2 gazte eta beste emakume bi beren kabuz. Bestalde, Gueñesko Ubieta emakume elkarteko ordezkari bat dago eta Zaramillo eta La Quadra auzoetako beste auzokide bi. Beraz, arlo ezberdinetako emakumeak dira, lan merkatuan daude gehienak eta hezkuntza maila ertain-altua da.

3. FASEA: 2009-2012 Berdintasunerako II. Planaren elaborazioa

Diagnostikotik abiatuz, II. Plana idatzi da eta horretarako zenbait urrats jarraitu dituzte:

- II. Planaren I. Zirriborroa idaztea, talde arduradunak erkatua.
- II. Planaren II. Zirriborroaren elaborazioa.
- II. Planaren II. Zirriborroaren aurkezpena, udal sailietako teknikariek eta politikariek erkatua (sail teknikoetako 3 arduradun eta sail politikoetako 4 arduradun).
- Planaren III. Zirriborroaren elaborazioa.
- Lan taldeak, zirriborroak herriko gizarte agenteekin erkatzeko. Lan-taldeak herriko lau guneetan egin dira (Zaramillo, Sodupe, La Cuadra eta Gueñes) eta elkarte ezberdinetako 21 lagun bertaratu ziren (emakume taldeak, jubilatutako elkarteak, argazkilaritza taldeak, abesbatzak...).
- 10 eguneko entzunaldi publikoa.
- Behin betiko Plana idaztea.
- Udalaren osoko bilkuran onestea.

3. DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK

3.1. AMIA

Diagnostikoa egiteko prozesuan indarguneak, ahuleziak, aukerak eta mehatxuak aztertzen dira, Gueñesko Udalean eta udalerrian berdintasun-politikak abiarazi ahal izateko:

INDARGUNEAK

- Berdintasun Saila urte osoan lanean ari da eta bertako langileek prestakuntza eta lan-esperientzia dute.
- Berdintasun Sailerako aurrekontua dago eta urtero ezartzen da; dena dela, behar izanez gero, aurrekontu handiagoa ezar daiteke.
- Aldez aurreko ibilbidea Ekintza Positiboko I. Planarekin eta beraz, Berdintasun Sailak Udalean eta udalerrian ere finkatuz doa.
- 2003 urtetik BFAren PareKatuz sarean hartu du parte eta 2007 urtetik sare horren 3 espazioan ere bai.

AHULEZIAK

- Langile tekniko eta politiko batzuk ez daude oso kontzientziatuta; politikariak aukera-berdintasunean sentibilizatuta badaude ere, planak eraginkorrak direla ez dute argi ikusten.

AUKERAK

- Beste erakunde batzuetako laguntzak eta diru-laguntzak daude, berdintasunarekin zerikusia duten gaietarako.
- Herriko emakume elkarte batzuen jarduerak Udalean bertan koordinatu nahi dira.
- Mankomunitatearekin batera ekintzak gauzatzeko aukera.
- Berdintasunaren aldeko udalerrri sareak daude.

MEHATXUAK

- Herritarren arteko komunikazio eskasa, beharbada, biztanleria guneeetan sakabanatuta dagoelako.
- Herritarren partaidetza eskasa, oro har.

3.2. HOBETZEKO ARLOAK

Diagnostikoaren datuetatik abiatuz hobetu beharreko arloak ezarri dira Gueñesko II. Berdintasun Plan honen esku-hartzearen eremuen arabera. Hobetzeko arlo horietatik abiatuta, bakoitzean jardun programak ezarriko dira.

1. ARLOA: NEURRI OROKORRAK

HOBETZEKO EREMUAK

- Berdintasunerako udal baliabideak egokitu eta hobetzea (sailaren izena, pertsonak eta aurrekontua- oro har eta sail guztietarako-).
- Emakume eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako toki mailako politikak hobeto ezagutzea, eta genero-ikuspegia sailetan nola txertatu ikastea (batez ere, Kontu-hartzailletza, Hirigintza eta Gizarte Ekintza sailak).
- Genero-ikuspegia udal sailetan txertatzearen sistematizazioa (datu-bilketa, sexuaren arabera berezita, sail guztietan burutuko diren ekintzetan genero-inpaktuari buruzko diagnostikoak aurretik egitea, eta udalerriko emakumeen beharrezko diagnostikoak ere bai). Sail batzuetan dagoeneko hasi dira ekintza horietako batzuk egiten.
- Berdintasunerako politika eta jarduketan informazio eta komunikazioko bideak gehitzea, batez ere, Zaramillon eta la Quadran.

2. ARLOA: KULTURA ETA KIROLA

HOBETZEKO EREMUAK

- Sexuaren arabera berezitateko datuen bilketa, kulturen eta kirolean burutu diren ekintzen ingurukoak.
- Berdintasuna eta baloreak ezagutaraztea.
- Emakumeek kudeatutako kultur ekintzen kontratazioa.
- Emakumeen kultur eta arte sormena bultzatzea.
- Berdintasuna sustatzea udalerriko gizarte eta kultur arloko eta kirol elkarteetan.
- Gueñesko emakume eta gizonen kirolean parte hartzen dutela jakitea, batez ere, eskola arteko eta partaidetzako kirolean.
- Futbol zelaira doan bidea hobetzea.
- Kirol arlo ezberdinetan gero eta emakume gehiago egotea, batez ere, ordezkariak eskasa duten arloetan.
- Etxeko lanetan gizonen ere ardurak dituztela sentsibilizatzea.
- Lana eta familia bateragarri egiteko asmoz, kultur eta kirol jardueren ordutegiak egokitzea.

3. ARLOA: GAZTERIA

HOBETZEKO EREMUAK

- Genero-ikuspegia GUGAZ proiektuan eta egingo den GAZTE PLANEAN txertatzea.
- Gazteentzako eta nerabegarora iristear dauden gazteentzako (12-16 urte) lokalak behar dira.
- Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren inguruko sentsibilizazio handiagoa behar da gazteen artean.

4. ARLOA: HEZKUNTZA

HOBETZEKO EREMUAK

- Etxeko lanen erantzukidetasuna sustatzea ikasle eta familien artean.
- Kultur ekitaldietara joan ahal izateko, familia eta lana bateragarri egiten laguntzen duten zerbitzuak hobetzea.
- Genero-ikuspegia duten gazteei lan-orientazio handiagoa ematea, batez ere, neskentzat, lan aukera eskaintzen dutenei buruz.
- Betidanik gizonezkoen arlokoak izan diren ikasketetan emakumeen presentzia sustatzea.
- Udalerriko hezkuntza zentroekin batera, erantzukidetasuna eta bateragarritasun arloan ikasleen sentsibilizazioa sustatzea.
- Euskara **S**aillak antolatzen dituen ekitaldietan berdintasunari buruzko baloreak sustatzea.
- Hezkidetzako programak udalerriko hezkuntza-zentroetan.

5. ARLOA: LANA

HOBETZEKO EREMUAK

- Betidanik gizonezkoen arlokoak izan diren lanbideetan emakumeak aritzea sustatu.
- Eskualdeko enprekin hitzartzea emakumeen kontratazioari lehentasuna eman, batez ere, 45 urtetik gorako emakumeak.
- Enpresetan emakume eta gizonen arteko berdintasuna txertatzearen inguruko sentsibilizazioa eta informazioa eman enpresa horiei.
- Gueñesen lan egiten duten emakumeen lan-baldintzak hobetzea sustatu.
- Gizonak sentsibilizatu erantzukidetasun eta bateragarritasun arloan.
- Emakumeek gutxi ordezkaturik dauden lanpostuetarako prestakuntza-ikastaroak antolatzen jarraitu.

6. SAILA: GIZARTERATZEA, OSASUNA ETA DROGA MENDEKOTASUNA

HOBETZEKO EREMUAK

- Datuak bildu, sexuaren arabera, eta diagnostiko sistematikoak egin, gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden eta bereizkeria anitza jasaten duten emakumeen beharrianak zehazteko helburuz.
- Etxez etxeko laguntza zerbitzuak jasotzeko itxaron-zerrendak ahalik eta gehien gutxitu, eta zerbitzuen ordutegiak zabaldu.
- Mediku arreta eta ginekologikoaren zerbitzua hobetzeko lagundu eta sustatu (familia plangintzako zentroa).
- Haur eskola publikoa sortu.
- Besteren laguntza behar duten pertsonak "larrialdietan" zaintzeko zerbitzuen praktika egokiak ondo ezagutu.
- Indarkeria jasaten duten emakumeentzako arreta-zerbitzuen berri eman.
- Elikaduraren nahaste, gaixotasun kardiobaskular, sexu osasun eta ugalketa osasunari buruzko kontzientziazioa eta sentsibilizazioa, genero-ikuspegian oinarrituta eta adin guztietako emakume eta gizonentzat.

7. ARLOA: HIRIGINTZA ETA INGURUMENA

HOBETZEKO EREMUAK

- Hirigintzako planak egitean emakumeen beharrianak antzeman.
- Herrian emakumeentzat seguruak ez diren lekuak antzeman.
- Nekazaritzan lan egiteko prest dauden herriko gazteen jarrerari buruzko diagnostikoan genero-ikuspegia txertatzea.
- Nekazaritzako familia ustialekuen titularrak emakumeak izatea sustatu.

4. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA ARLOAK

ARDATZ ESTRATEGIKOAK

Berdintasun-politikei dagokienez, datozen urteotan landuko diren lehentasunezko gaiak definitzen dira ardatz estrategikoen bitartez, hain zuzen ere, Mainstreaminga, jabetasuna eta gizartearen eta politikaren arloko parte-hartzea, Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna eta Emakumeen aurkako indarkeria. Ardatz horiek EAEko gizon-emakumeen artean berdintasuna lortzeko IV. Planean ezarritakoak dira.

1) Mainstreaminga

Nazio Batuen Emakumearen Egoera Juridiko eta Sozialeko Batzordeak 1987. urtean proposatu zuen lehen aldiz mainstreaminga edo zeharkakotasuna. Genero-mainstreamingak edo genero-ikuspegia integratzeak honako hau dakar: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, itxaropen eta premia ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea esku-hartze publikoan. Beraz, politika eta ekintza guztietan, plangintza, garapen eta ebaluazio fase guztietan, ezberdintasunak ezabatu eta berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketak hartuko dira kontuan.

Gueñesko Udalean genero-ikuspegia sail guztietan txertatuko da eta horretarako sailen arteko batzorde bat eratuko da. Plana indarrean dagoen urteetan estrategia nagusia izango da udal langileek gai hori sakon ezagutzea. Genero-ikuspegia txertatzeko sentsibilizazio gehiago duten sailetan hasiko da sakon lan egiten, hau da, Kultura, Gazteria eta Enplegu sailetan.

2) Jabetasuna, eta gizarte eta politika arloko parte-hartzea

Ardatz honek suposatzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea eta bermatzea, eta bereziki, emakumeen autonomia sustatzea eta beraien egoera sendotzea.

Ardatz honetan estrategia nagusia izango da emakumeen partaidetzarako organo bat sortzea, eta Planaren lehenengo urteotan zehazten joango da. Beste udalerririk batzuetako esperientzia ezagutu ondoren, prozesuari ekingo zaio, parte hartu nahi duten Gueñeseko emakumeekin bilera egin eta gero: emakume taldeak, auzokide elkarteak, interesa erakusten duten emakumeak...

3) Bateragarritasuna eta erantzunkidetasuna

Ardatz honek esan nahi du bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egitea, etxeko lanetan emakumeen eta gizonen erantzukizunak sustatuz, lan-egiturak bizitza pertsonalaren eta familiaren beharrietara egokituz eta gizarte eta zerbitzu soziokomunitarioak ere egokituz.

Ardatz honetan Udalaren estrategia nagusia izango da bateragarritasunerako zerbitzuak sortzea (ludoteka, haurtzaindegi zerbitzua Udalak antolatzen dituen ekitaldietara joan ahal izateko, plaza gehiago eguneko zentroan, etxex etxeko laguntza zerbitzuan itxaron zerrendarik ez egotea...), eta sentsibilizazioaren eta prestakuntzaren bitartez gizonen eta mutilen erantzukidetasuna sustatzea.

4) Emakumeen aurkako indarkeria

Agiri osoak prebentzio izaera dauka eta ardatz honek, hain zuzen ere, emakumeen aurkako indarkeriari heltzen dio indarkeria sexistaren aurka borrokatzeko neurri eta baliabideak ezarriz. Lehenik eta behin, hona hemen mota horretako indarkeriaren definizio laburra: *"sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira halaber emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan".*

Emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, Gueñesko Udalaren estrategia nagusia da, batetik, biktimen arretarako toki mailako protokoloa ezartzea tarteko agente guztien (Udala, osasun zentroa, Udaltzaingoa, Ertzaintza, hezkuntza zentroak...) jardunak koordinatzeko, eta bestetik, herritarren sentsibilizazioa areagotzea gizarte-arazo horrekiko.

ESKU HARTZEKO ARLOAK

II. Plan honen elaborazioan EAEn Emakumeen eta Gizonen arteko Aukera Berdintasunerako IV. Planean ezarritako egitura hartu da kontuan. Hala ere, IV. Plan honen arloak Gueñesko Udalaren jardunbideari egokitu zaizkio; horrela, II. Plan hau osatuko duten arloak dira jarraian azalduko direnak (dena dela, garrantzizkoa da gehitzea arloaren erantzukizunak ez direla nahitaez esku hartzeko arlo jakin batean agortzen, programa batzuk arlo batera baino gehiagotara hedatu ahal direlako).

ESKU HARTZEKO ARLOAK:

1. ARLOA: Neurri orokorrak

Arlo honetan Udalak honakoetarako konpromisoa hartzen du:

- Gueñesko Udalean berdintasuna bermatzeko egiturak eta baliabideak.
- Berdintasun Politikak eta Planak.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zer den jakitea Udalean.
- Genero-ikuspegia udalaren jardunetan txertatzea.

Arlo honen helburua da udal sailtako berdintasun-politiken arduradunei eta tarteko pertsoneri neurri eta tresnak eskura jartzea, Udalean berdintasun politikak garatzen laguntzen dutenak. Beraz, esku-hartzeko arlo honetan sartzen dira Hezkuntza, Berdintasuna eta Euskara sailtan burutuko diren programak.

2. ARLOA: Kultura eta Kirola

Bai kulturen bai kirolean, emakumeak eta gizonak esparru ezberdinetan (pribatua eta publikoa) eta balore ezberdinetan (femeninoa eta maskulinoa) kokatzen dituen sexu-genero sisteman oinarritutako baloreak dira nagusi; hortaz, partaidetza orekatua oztopatzen da eta askotan emakumeak esparru publikotik at uzten ditu, zehazki, kultur eta kirol esparrutik kanpo.

Gueñesko Udalak zeregin garrantzitsua dauka herritarrek kirol eta kultur ekitaldiak eskuratzeko orduan; gainera, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari lotutako baloreen sustapenari dagokionez, Udalak eragin positiboa eduki dezake herriko komunikabideetan.

Beraz, bai Udala, kultur eta kirol zerbitzuen zuzeneko kudeaketan, bai gizarte eta kultur zerbitzuak ematen dituzten erakundeak, arlo honen helburuetako agenteak dira.

3. ARLOA: Gazteria

EAEko Berdintasunerako IV. Planean ageri ez bada ere, Gazteria arlo espezifiko baina, toki mailako politiketan zeharkako arloa da, eta Gueñesko II. Plan honen esku-hartzeko arloen artean sartu da, herritarrentzako jarduketan eremuan lehentasun politikoa delako. Ildo horretatik, Udalak GUGAZ

proiektua garatu du herriko gazteei zuzenduta, eta arlo honetako helburuak eta jarduketak bertan sartuko lirateke.

4. ARLOA: Hezkuntza

Esku-hartzearen oinarria osatzen duten elementuetako bat da hezkidetzaren hezkuntza txertatzea. Pertsonen bizimodua garatzen den erakundeetan eta gizartean indarrean dauden eredu sexistak berrikusteko esku-hartzea dakar berekin hezkidetzak; izan ere, eredu horiek hezkuntza zentroetan eta familian islatzen dira. Helburua da pertsonak gizaki moduan garatzea, sexuaren araberako estereotipo eta roletatik urrun. Gainera, sexu bietako pertsonen arteko komunikazio eta berdintasuneko harremanak sustatu nahi dira, eta horretarako oinarriak izan behar dira elkarrekiko begirunea, bizikidetzaren onarpena, isuri sexistak eta genero-estereotipoak gainditzea...

Arloaren plangintza orokorrean oinarritzotzat jotzen da hezkuntza aritzen diren agente guztiek ekintzen garapenean parte hartzea: irakasleak, monitoreak, gurasoak, ikasleak... Ezinbestekoa da agente guztien parte-hartzea helburuari orokortasunetik ekiteko. Ildo horretatik, herriko hezkuntza-zentroekin lan egingo da zuzen-zuzenean; zentro horiekin gaur egun hezkidetzako programak arrakasta handiz garatzen ari dira. Beraz, bide horretatik jarraitu nahi da, familiak ere tartean sartuz.

Ikuspegi orokor batetik, garrantzitsua da hezkuntza aisiako eta astialdiko hezkuntza ere badela kontuan hartzea. Gueñesko Udala garrantzi handiko erakundea da, batez ere, aisiako eta astialdiko hezkuntza arloan, espazio eta egitura ezberdinetan eragiteko gaitasun handia baitu: hezkuntza sistemaren hasierako faseak, prestakuntzako programa osagarriak, hezkuntza ez-arautua, aisiako eta astialdiko hezkuntza, harremanak guraso elkarteekin eta erakunde soziokulturalekin... Arloak landu nahi dituen helburuek udalaren jarduteko gaitasun horrekin dute zerikusia, eta aipatutako bi elementuak zeharka lantzen ditu (hezkidetzaren eta hezkuntzako agenteen partaidetza).

5. ARLOA: Lana

Ekonomiaren sustapen eta toki garapenaren arloan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten neurriak abiarazteko egoerarik onenean dago Udala.

Gainera, herritarrengandik hurbil dagoen administrazio maila izanik, ugalketa-lanean erantzukidetasuna sustatzeko balore, jarrera eta gaitasunetan eragiteko ahalmena dauka.

6. ARLOA: Gizarteratzea, osasuna eta droga-mendekotasuna

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 45. artikuluan hauxe dio Gizarteratzeari buruz: *"Euskal herri-administrazioek beharrezko neurriak hartuko dituzte pobreak eta gizarte-bazterkeriak emakumeengan eragin handiagoa izatearen ondorioei aurre egiteko. Horretarako, alde batetik, genero-ikuspegia txertatuko da pertsona guztiek oinarrizko giza eskubideak erabili ahal izango dituztela bermatzea helburu duten sektore-programetan, eta bestetik, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeen kolektiboetara zuzendutako programa zehatzak diseinatuko dituzte".*

Herritarrak gizarteratzeko lana, neurri handi batean, udalek egin izan dute beti eta oraindik eginen

jarraitzen dute. Oinarrizko zerbitzuen garapen eta kudeaketaren bidez oinarrizko eskubideak eskuratzeko berme gisa ulertzen da gizarteratzea. Hori dela eta, genero-ikuspegia funtsezkoa da emakume eta gizonen arteko egiturazko ezberdintasunaren ondorioak toki mailan arintzen joateko, emakumeak gizartetik baztertuta geratzeko arriskua handiagoa dakarrelako.

Legeak dioen bezalaxe, gizarte-ongizatearen politketatik abiatuz egiten den berdintasunaren aldeko lanean kontuan hartu beharrekoa da gizartetik baztertuta geratzeko, babesik gabe egoteko eta mendekotasun egoeran bizi izateko arriskua handiagoa dela emakumeen diskriminaziorako beste faktore batzuk gehituz gero.

Eremu horretan udalen lana eta eskumenak batez ere prebentzio arlokoak dira, eta zenbait arlotan laguntzako baliabideak eskura jartzea da garrantzitsua, bai eskumenengatik, bai ildo horretako lan ibilbideagatik.

Gueñesko Udala, gizarte-baliabide horiek kudeatzeaz arduratzen den Enkarterriko Mankomunitatearekin batera, herritarrei zuzeneko informazio eta baliabideak eskura jartzeko espazioa da eta gainera, gizarte-beharrizanak antzemateko tresnarik onena da. Beraz, beharrezkoa da genero-ikuspegia udalaren esku-hartze eta plangintza guztietan txertatzea.

7. ARLOA: Hirigintza eta ingurumena

Toki administrazioek, aipatu arloetan, hiri eta herrietako lurralde eta hirigintza antolaketari eta Toki Agenda 21en garapenari lotutako eskumenak dituzte. Udalerriak, herritarrak bizi diren espazioak, eta udalak, herritarrengandik hurbileko erakundeak, erreferentziak dira emakume eta gizonen parte har dezaten herrien plangintzan, emakumeen onarpenean, emakumeen ongizatearen hobekuntzan eta bateragarritasunerako hiri-egituren egokitzapenean.

Arlo honetan Udalerako proposatzen diren oinarrizko esparruak, jarraian aipatuko direnak, funtsezkoak dira emakume eta gizonen beharrizanak, ekarpenak eta interesak hirigintza, ingurumen eta garraio publikoaren plangintzan sartzeko. Hona hemen proposatutako esparruak:

- Genero-ikuspegia txertatzea hirigintza eta ingurumen arloen plangintzan, esku-hartze eta ebaluazioetan.
- Emakumeek hirigintza eta ingurumen arloetako prozesuetan parte hartzea.
- Ekipamenduak eta azpiegiturak sortu edo/eta egokitzea eta ordutegiak moldatzea familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko.
- Emakumeen segurtasuna eta seguru sentitzea leku publikoetan.

Ardatz estrategikoak eta esku hartzeko arloak kontuak izanik, hauxe da Planaren egitura orokorra:

ARLOAK	ARDATZAK	Programak	Helburuak	Ekintzak
NEURRI OROKORRAK	Mainstreaming	3	8	23
	Jabekuntza	1	2	6
	Bateragarritasuna eta erantzukidetasuna	0	0	0
	Emakumeen aurkako indarkeria	0	0	0

KULTURA ETA KIROLA	Mainstreaming	1	1	3
	Jabekuntza	2	8	13
	Bateragarritasuna eta erantzukidetasuna	1	2	3
	Emakumeen aurkako indarkeria	1	1	3
GAZTERIA	Mainstreaming	1	1	3
	Jabekuntza	2	2	3
	Bateragarritasuna eta erantzukidetasuna	1	1	1
	Emakumeen aurkako indarkeria	1	1	1
HEZKUNTZA	Mainstreaming	1	3	6
	Jabekuntza	1	1	1
	Bateragarritasuna eta erantzukidetasuna	1	2	3
	Emakumeen aurkako indarkeria	1	1	2
LANA	Mainstreaming	0	0	0
	Jabekuntza	5	12	16
	Bateragarritasuna eta erantzukidetasuna	1	1	1
	Emakumeen aurkako indarkeria	0	0	0
GIZARTERATZEA, OSASUNA ETA DROGA MENDEKOTASUNA	Mainstreaming	0	0	0
	Jabekuntza	3	5	8
	Bateragarritasuna eta erantzukidetasuna	1	3	3
	Emakumeen aurkako indarkeria	1	2	8
HIRIGINTZA ETA INGURUMENA	Mainstreaming	0	0	0
	Jabekuntza	0	0	0
	Bateragarritasuna eta erantzukidetasuna	0	0	0
	Emakumeen aurkako indarkeria	1	2	4
GUZTIRA		32	62	118

Esku-hartzeko arloetan ez dauden ardatz estrategikoei buruz hauxe nabarmendu behar da:

- § Neurri Orokorren arloan ez dira 3. eta 4. ardatzak lantzen, horiei buruzko helburuak beste esku-hartze batean daude eta. Udal txikia izanik, ardatz horiek beste arlo batzuek betetzen dituzte.
- § Lan, Gizarteratze, Osasun eta Droga-mendekotasun, eta Hirigintza eta Ingurumen arloek ez dute helbururik Mainstreaming ardatzean, Neurri Orokorren arloak ezartzen baititu.
- § Lan arloak ez du helbururik emakumeen aurkako indarkeriaren ardatzean, II. Plan honetan ez duelako lehentasunekotzat jotzen.
- § Hirigintza eta Ingurumen arloak emakumeen aurkako indarkeriaren ardatza baino ez du lantzen, gainerako ardatzak beste arloetako batzuetan daudelako, eta Udalaren Hirigintza Sailak esku-hartzeko arloren batean hartu beharko du parte.



5. PLANA EZARTZEKO NEURRIAK

5.1. BERDINTASUNERAKO EGITURAK.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 10. artikuluan ezarri denez, foru eta tokiko administrazioek, beren burua antolatzeko eskumenen eremuan, egiturak egokitu behar dituzte halako moldez non horietako bakoitzean gutxienez emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko, aholkuak emateko, programatzeko eta ebaluatzeko ardura duen erakunde, organo edo administrazio-unitate bat egongo baita erakunde horiek duten jarduteko lurralde-eremuan.

Gueñesko Udalean Berdintasun Saila dago Ekintza Positiboko I. Plana onetsi zenetik, eta Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasunerako konpromisoan aurrera egitea du helburu.

Hasiera-hasieratik ekintza ugari gauzatu dira. Gaur egun Gueñesko Udalak Hezkuntza, Berdintasun eta Euskara Sailaren zinegotzigoa du eta urte osoan lanean aritzen diren langile teknikoek prestakuntza eta esperientzia dute genero arloan. Toki Garapenerako agenteak, hain zuzen ere, bere lanaioaren erdian emakume eta gizonen arteko berdintasun arloan jarduten du. II. Plan honetan Gueñesko Udalak sail horretarako egitura mantentzeko konpromisoa hartu du. Gainera, berdintasun politiken arloan 15 urtetik gorako esperientzia duen laguntza teknikoa ere arituko da.

Hona hemen langile horien eginkizunak:

- a) Berdintasun arloko programazioaren eta plangintzaren diseinua, baita segimendu eta ebaluaziorako tresnak ere.
- b) Ekintza positiboko neurri espezifikoaren diseinua eta bultzada.
- c) Genero-ikuspegia dagokion administrazioaren politika, programa eta ekintzetan sustatzea, maila eta fase guztietan.
- d) Dagokion administrazioaren mendeko sail eta erakundeen arteko lankidetzaren eta aholkularitza emakume eta gizonen berdintasunaren arloan.
- e) Lurralde eremuko herritarren sentsibilizazioa emakume eta gizonen ABIAPUNTUari buruz eta berdintasuna sustatzeko beharrezko neurriei buruz, bereizkeria anizkoitzaren kasuak aintzat hartuta.
- f) Dagokion administrazioak programa eta zerbitzu bereziak sortu eta egokitzea, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko eskubideak eskuratu ditzaten.
- g) Emakume eta gizonen bizitza pertsonala, familia eta lana bateragarri egiten laguntzen duten zerbitzu eta baliabide soziokomunitarioak sortu eta egokitzeko bultzada ematea.
- h) Lurralde eremuaren barruan diskriminazio egoerak antzematea eta horiek desagerrarazteko neurriak sortu eta sustatzea.
- i) Erakunde publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzeko eta parte hartzeko bideak eta harremanak ezartzea, berorien helburu edo funtzioen arabera emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzen dutenak.

- j) Administrazio horretako emakume eta langileen prestakuntzako beharriaren diagnostikoa eta kasuan kasuko prestakuntza, irizpideak eta lehentasunak proposatzea.
- k) Elkarrizketak emakume eta gizonen arteko berdintasunaren arloan ardura duten erakunde, organo eta unitateekin, batez ere, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearekin.
- l) Lege honetan ageri diren edo bere eskumenetan ematen zaion beste edozein eginkizun.

Genero-ikuspegian adituak diren enpresak kontratatuko dira, II. Plan hau indarrean dagoen bitartean programak ezartzeko.

Udalen arteko koordinaziorako egitura edo sailen arteko batzordea ere egongo da, Berdintasun Saileko zinegotzigoa buru dela, genero-ikuspegia udal sail guztietan lantzen duena.

Halaber, emakumeek udal politika guztietan, oro har, parte hartzeko organoa ere sortuko da eta bereziki, II. Plana abiaraztean ere parte hartzeko. Plan horretan emakume elkarre guztiek, bestelako elkarreetakoei, gizarte agenteek eta nahi duten guztiek har dezakete parte.

Berdintasunaren alde lan egiten duten erakundearen arteko sareetan ere parte hartuko da, hala nola:

- Berdintasunaren aldeko PAREKATUZ sarea (Bizkaiko Foru Aldundia).
- Berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udalerrien BERDINSAREA sarea (Eudel/ Emakunde).
- Toki mailan Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Europako Gutuna.
- Eskualde mailan sortzen diren berdintasunaren aldeko bestelako sareak.

5.2. PLANA KUDEATZEKO TRESNAK

PROGRAMAZIO ETA EBALUAZIORAKO TRESNAK

II. Plan hau programatzeko, urteko programa operatiboak egingo dira aurreko ekitaldiko azken hiruhilekoan. Programa horiek Planaren arlo bakoitzerako plangintza izango dute, hurrengo ekitaldian gauzatuko direlarik.

Ebaluaziorako, II. Planaren indarraldiaren hasieran ebaluazio sistema bat egingo da. Sistema horrek, adierazleak neurtzeko, ebaluazioko tresnak eta prozesua izango ditu. 2009 urtean hasiko da.

Urteko txostenak egingo dira eta aurrekusi eta burututako lan-plangintza, zailtasunak eta aurrerapausoak erakutsiko dituzte.

Berdintasun Sailak egingo ditu hurrengo ekitaldiko lehenengo hiruhilekoan, ardura duen sailak edo erakundeak parte hartuz.

AURREKONTUA

2009 urterako, 12.000 €-ko aurrekontua dago Berdintasunerako II. Plana burutzeko. Plan honen indarraldiko gainerako urteetarako aurrekontua hobetu edo berdin geratuko da, eta aurreko urteko azken hileetan ezarriko da.



6. PROGRAMAK, HELBURUAK ETA EKINTZAK

	1 ARDATZA GENERO MAINSTREAMINGA	2 ARDATZA EMAKUMEEN JABEKUNTZA, ETA GIZARTE ETA POLITIKA ARLOKO PARTE HARTZEA	3 ARDATZA BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUKIDETASUNA	4 ARDATZA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
1. ARLOA NEURRI OROKORRAK	<p>EM1.1 programa: Berdintasun arloko udal baliabideak eta egiturak egokitu eta hobetu.</p> <p>EM1.2 programa: Genero-ikuspegia lan prozesu eta politiken diseinuan txertatu.</p> <p>EM1.3 programa: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna jakinarazi.</p>	<p>EE1.1 programa: Emakumeek toki mailako politiketan parte hartzeko prozesuak hobetu.</p>		
2. ARLOA KULTURA ETA KIROLA	<p>EM2.1 programa: Genero-ikuspegia gizarte eta kultur elkarte eta kirol elkarten programan eta funtzionamenduan txertatu.</p>	<p>EE2.1 programa: Errealitatearen ikuspegi ez sexista ematen duen kultura sustatu.</p> <p>EE.2.2 programa: Emakumeek kirolean parte hartzea sustatu.</p>	<p>EC2.1 programa: Bateragarritasunerako eta zaintzarako etikaren kultura sustatu.</p>	<p>EV2.1 programa: Emakumeenganako indarkeriaren aurkako jarrera sustatzea.</p>



	1 ARDATZA GENERO MAINSTREAMINGA	2 ARDATZA EMAKUMEEN JABEKUNTZA ETA GIZARTE ETA POLITIKA ARLOKO PARTE HARTZEA	3 ARDATZA BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUKIDETASUNA	4 ARDATZA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
3. ARLOA GAZTERIA	EM3.1 programa Genero-ikuspegia gazteentzako programetan txertatu.	EE3.1 programa: Nerabeentzako espazioak egokitu. EE3.2 programa: Gueñesko emakume gazteen jabeakuntza garatu.	EC3.1 programa: Bateragarritasunerako eta zaintzarako etikaren kultura sustatu gazte eta nerabeen artean.	EV3.1 programa: Neska eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa, nerabezeroan eta gaztaroan.
4. ARLOA HEZKUNTZA	EM4.1 programa: Hezkuntzako agenteek (hezkuntza-zentroak, familiak, hezkuntza ez arautua) hezkidetzatza sustatu.	EE4.1 programa: Sexuagatikoa lan dibertsifikazioa sustatu.	EC4.1 programa: Bateragarritasunerako, erantzukidetasunerako eta zaintzarako etika sustatu ikasle eta familietan.	EV4.1 programa: Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa hezkuntzan.



	2. ARDATZA EMAKUMEEN JABEKUNTZA ETA GIZARTE ETA POLITIKA ARLOKO PARTE HARTZEA	3 ARDATZA BATERAGARRITASUNA ETA ERANTZUKIDETASUNA	4 ARDATZA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
5. ARLOA LANA	<p>EE5.1 programa: Udalak aldi baterako eta azpikontratutako emakumeen lan-egoera nolakoa den jakin.</p> <p>EE5.2 programa: Lan-baldintza hobekiak dituzten, lan egiteko aukera gehiago duten eta emakumeek ordezkaritza gutxi duten lanbideetarako lan prestakuntza hobea eman emakumeei.</p> <p>EE5.3 programa: Emakumeek Gueñesko enpresetan lana aurkitzeko aukerak eta enpresa horietan emakumeen lan-baldintzak hobetu.</p> <p>EE5.4 programa: Emakumeen enpresa-ekimenean eraketa eta sendotzea hobetu, batez ere, gutxi ordezkatuta dauden sektore eta lanbideetan.</p> <p>EE5.5 programa: Landa-ingurunean lan egiten duten emakumeen egoera hobetu.</p>	<p>EC5.1 programa: Gueñesko gizonen parte hartze handiagoa ugalketa-lanean.</p>	
